


**VILLA EL CORO**  
D MAILA

**LA FE PASEALEKUA 37**



**Frantzisko Urkola, 1918.**

#### **Deskribapena**

Villa Koralienea eta Villa Nazarethekin batera ilara-etxebizitzaren bolumen bera osatzen du, Urkolak diseinatu zituen horrelako multzoen beste adibide bat alegia; beste multzo bat dago hauek baino beheragoko kota batean, eta beste bat leku honetatik hurbil, Aldapetan. Bitxia bada ere, kasu honetan hiru etxebizitzak era batean bereizten dira ibarbiderako mendebaldeko fatxadetan, eta beste batean, berriz, sarrera hartzen duen ekialdekoan, honetan horma piko bat daukate eta. Etxebizitza bakoitzari dagokion zatia teilatu-hegal eta estalkietako aldaketez bereizten da, eta azken solairuan murrurru aurreratuak izateagatik. Beheko solairua eta goiko bi solairu dauzkate, pasealekutik kontatzen hasita, eta beste solairu bat ere bada erdisoto eran, lorategi plataformarantz. Etxe honetako fatxadetan dorretxeetako motiboak ikusten ditugu, esaterako azken solairuko hegal txikia, garitak dauzkaten kantoiak, bao zorrotzak eta arku konopialen forma duten beste batzuk. Era berean, hegalean eraikuntza nabarmentzen da, mentsulak eta idulkiak baitauzkate, bai mendebaldeko balkoian bai iparreko begiratokian.

#### **D mailako babes erregimen espezifikoak**

- 1.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: ez.
- 2.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harrizko elementuak, apaindura emokatuak eta estalkiak.
- 3.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: jasodurarik gabe.
- 4.- Nahitaezko lehengoratzak: ez.